

IRAKASKUNTZA-GIDA 2019/20

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

25076 - Psikometria

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikometriak aldagai psikologikoak neurtzeko behar diren baldintzak eta jarraitu daitezken prozedurak aztertzen ditu. Psikometriak psikologian, gizarte-zientzietan eta osasun zientzietan du tokia. Psikometriak hartzen dituen arloen artean, testena da ezagunena. Testak, profesionalek euren jardunean erabiltzen dituzten tresnak dira, eta horien aplikazio-eremua zabala da; hala nola, psikologia klinikoa, hezkuntza, neuropsikologia, erankundeen psikologia, kirolaren psikologia, gizarte zerbitzuak, osasuna eta ongizatea, trafikoa…. Testen bidez lortzen diren puntuazioak ongi interpretatzeko beharrekoak diren fidagarritasuna, baliagarritasuna eta estandarizazioa aztertzen ditu Psikometriak. Horietaz gain testak ongi erabiltzeko gidalerroak eta gomendioak eskaintzen ditu.

Irakasgaiaren ikuspuntua nagusiki praktikoa da. Ikasleak gerora izango duen jardun profesionalean behar izango dituten konpetentziak garatu nahi dira; bai ebaluazioarekin, bai orientazioarekin edota selekzioarekin lotura dutenak.

Psikometria ongi eramateko aurrez ikusitako irakasgaietan landutakoa gogora ekartzea gomendatzen da: estatistika deskribatzailea, asoziazio-neurriak, erregresio-ereduak eta oinarriko diseinuak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Psikologikoaren neurketaren berezitasunaz jabetzea.
2. Neurketa-tresnak sortzeko eta horien ezaugarriak aztertzeko metodoak ezagutzea.
3. Testen oinarri psikometrikoak ezagutzea: Fidagarritasuna, baliagarritasuna eta estandarizazioa.
4. Ebaluazio kontestu baterako test egokiena aukeratzen, aplikatzen, interpretatzen eta ebaluatzen jakitea.
5. Txosten psikometriko bat egiteko gai izatea.
6. Testak zuzen erabiltzeko nazio- zein nazioarteko gidalerroak ezagutzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Neurketa psikologian.
2. Neurketa tresnak sortzea.
3. Sarrera formala. Aldagai bakun eta konposatuak.
3. Itemen analisia.
4. Testen teoria klasikoa. Fidagarritasuna.
5. Itemari erantzutearen ereduak eta aplikazioak.
7. Baliagarritasuna: Bilakaera eta ebidentziak.
8. Puntuazioak interpretatzea: Eraldatzea eta berdintzea.
9. Psikometriaren azken ekarpenak.

METODOLOGIA

Irakasgaiaren ikuspunta praktikoa da eta irakasgai-modalitateak (klase teorikoak, gela-praktikak, ordenagailu-praktikak, tailerrak eta mintengiak) urtean zehar burutu beharreko proiektuei zuzenduta daude.

Ikasleek besteak beste, bi txosten nagusi egin beharko ditu:

.- Galdesorta bati dagozkien datuekin txosten psikometriko bat egin behar du.

.- Test baten ebaluazio-txostena egin behar da. Horretarako "Testak Ebaluatzeko Galdesorta" erabiliko da.

Talde-lanak dira horiek, eta notaren %30. Talde bakoitzak kurtso-bukaeran testaren-eskuliburua eta txostena aurkeztu eta defendatu beharko ditu.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	9		11		6		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	48	3	13,5		16,5		9		

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 70
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 30

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa teorikoaren zatia: 7

Praktikaren bidez lortu daiteken gehieneko nota: 3

Lan-praktikoa egin nahi ez dutenek, azken azterketarako aukera izango dute. Bertan ariketa teorikoak eta atal praktikoa gainditu beharko dute.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa teorikoaren zatia: 7

Praktikaren bidez lortu daiteken gehieneko nota: 3

Lan-praktikoa egin nahi ez dutenek, azken azterketarako aukera izango dute. Bertan ariketa teorikoak eta atal praktikoa gainditu beharko dute.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak e-gelan jarriko ditu praktikak egiteko behar den materiale guztia

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

Abad, F.J., Olea, J., Ponsoda eta García, C. (2011). Medición en ciencias sociales y de la salud. Madrid. Síntesis.

Embretson, S.E. Y Reise, S.P. (2000). Item response theory for psychologist. Mahwah, NY. Lawrence Erlbaum.

Elosua, P. (2003). Sobre la validez de los tests. Psicothema 15(2), 315-321.

Elosua, P. (2005). Psikometria. Testen eraketa eta erabilpena. Leioa: EHU

Elosua, P., Bully, P., eta Mujka, J. (2013). Psikometriako praktika-gidaliburua. Leioa: EHU

Elosua, P. eta Etxeberria, J. (2013). Rcommander eta datuen analisisa. Leioa: UEU

Muñiz, J (2018): Psicometría. Alianza: Madrid

Thissen, D. y Wainer, H. (2001): Tests scoring. Mahwh, NY. Lawrence Erlbaum.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Elosua, P. (2010). R gizarte-zientzietarako. Datuen eta Eskalen analisisa Rcommander-ekin: Universidad del País Vasco.

Elosua, P. (2011). Introducción al entorno R. Leioa: UPV.

Elosua, P. (2011). Psicometría. Conceptos básicos y aplicaciones prácticas con Rcommander. Leioa: UPV/EHU.

Elosua, P. (2013). Los tests psicológicos en la práctica profesional. Madrid: Consejo General de la Psicología.

Haladyna, T.M. (1999): Developing and validating multiple-choice test items. Hillsdale, NJ: Lea

Hambleton, R.K. (1990): Item Response Theory: Introduction and Bibliography. Psicothema, 2(1),97-107.

Linn, R.L. eta Gronlund, N.E. (2000) Measurement and assessment in teaching (8th edition). Upper Saddle River, NJ: Prentice Hall

Nunnally, J.C. eta Bernstein, I.J.(1995): Teoría Psicométrica. Mcgraw-Hill. México.

Olea, J.; Ponsoda, V. Y Prieto, G. (Eds). (1999). Tests informatizados: fundamentos y aplicaciones. Madrid: Pirámide.

Thissen, D. eta Wainer, H. (2001): tests scoring. Mahwah, NY. Lawrence Erlbaum.

Van Der Linden, W. J.Y Hambleton, R. K., Eds. (1997). Handbook of modern item response theory. New York: Springer-Verlag.

Aldizkariak

Anales de Psicología <http://www.um.es/analesps/>

Papeles del Psicólogo <http://www.cop.es/papeles>

Psicothema <http://www.psicothema.com/>

RELIEVE: <https://www.uv.es/RELIEVE>

Spanisj Journal of Psychology: <http://revistas.ucm.es/index.php/SJOP>

Interneteko helbide interesgarriak

American Psychological Association. <http://www.apa.org/>

Asociación de Metodología de las Ciencias del Comportamiento. <http://www.aemcco.org/>

Colegio Oficial De Psicólogos. <Http://www.cop.es>

International Test Commission. <http://www.intestcom.org/>

OHARRAK

Klaseetara etortzea legez derrigorrezkoa ez baldin bada ere, biziki gomendatzen da irakasgaia egunean eraman nahi bada. Izan ere, klase teorikoetan azaltzen diren kontzeptuak ongi ulertzea beharrezkoa baita psikometria irakasgaia ongi bereganatzeko eta bestelako praktikak ongi burutzeko.